

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENDIOLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Mendiolako Kontzejuaren zenbait landa lurzatiren aprobetxamendurako lizitazio lehiaketa

Mendiolako Kontzejuak, 2024ko irailaren 29ko erabaki baten bidez, baldintza ekonomiko-administratiboen eta baldintza berezien agiriak onetsi zituen, kontzejuaren jabetzako landa lurzati hauen aprobetxamenduko errentamendu kontratuaren adjudikazioa arautzeko.

1. Erakunde adjudikatzailea

Mendiolako Kontzejua.

2. Kontratuaren xedea

Taulan jaso diren Mendiolako Kontzejuaren jabetzako landa finkak lehiaketa bidez alokatzea.

KATASTRO ERREFERENTZIA	GEOARABA			KOORDENATUAK (DD)		MOTA	IDENTIFIKAZIOA	AZALERA	
	UDALERRIA	POLIGONOA	LURZATIA	LATTITUDEA	LONGITUDEA			M ²	HA
59160161000000000CV	59	16	161	42.8149811	-2.6455915	Laugarren mailako lehorreko laborantza	Mugandi 1	3.323	0,3323
591600040A00000000JV	59	16	4	42.821864	-2.6643185	Laugarren mailako lehorreko laborantza	Olarizu Lukurumendi	2.459	0,2459
591501220000000000ET	59	15	122	42.8026894	-2.6566057	Bosgarren mailako lehorreko laborantza	Meana / Acata	10.806	1,0806
591600580000000000DO	59	16	58	42.8225589	-2.6508737	Lehorreko laborantza	La Chopera	904	0,0904

3. Izapidetzea eta prozedura

Ohiko izapidetzea, prozedura irekia, lehiaketa.

4. Abiapuntuko prezioa

Abiapuntuko prezioak taulan adierazitakoak dira, eta KPlaren mende daude. Kontuan izan behar da hortik gorako prezioak bakarrik onartuko direla.

IDENTIFIKAZIOA	IRTEERA PREZIOA (€/URTE)
Mugandi 1	40,00 €
Olarizu Lukurumendi	50,00 €
Meana / Acata	150,00 €
La Chopera	10,00 €

5. Kontratuaren iraupena

4 urte, eta beste 4 urtez luzatzeko aukera.

6. Eskaintzak aurkeztea

Eskaintzak posta elektronikoz aurkez dakizkioke Mendiolako Administrazio Batzarrari: mendio-lajunta@gmail.com, edo Mendiola Etxezaharra gizarte etxeko postontzian utz daitezke (Olaranbe hiribidea 10, 01194 Mendiola), eta 615.748.775 telefonora deituz jakinarazi behar da eskaintza bertan utzi dela. Hamabost egun izango dira eskaintzak aurkezteko, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

7. Adjudikatzeko irizpideak

Finka bakoitzeko eskaintzek gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dituzte guztira. Honako hauek izango dira balorazio irizpide objektiboak:

- Prezioa: 55 puntu.
- Finkan egingo diren hobekuntzak: 15 puntu.
- Helburuak jasangarritasunarekin bat etortzea: 30 puntu; horietatik:
 - 35 urtetik beherako nekazari/abeltzain gazteak: 5 puntu.
 - Jarduera profesionalean 2 urte baino gutxiago daramaten nekazari/abeltzain berriak: 5 puntu.
 - Ingurumena errespetatzen duten jarduerak: 20 puntu.

8. Agiriak eta argibideak eskuratzea

Zalantzak argitzeko eta agiri osoa eskatzeko, deitu 615.748.775 telefonora.

9. Eskaintzak irekitzea

Mendiolako Kontzejuaren aretoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo larunbatean, 12:00etan.

Mendiola, 2024ko urriaren 23a

Lehendakaria

CARLOS JAVIER CANTO DÍAZ